



GARAPEN ETA LURRALDE-ANIMAZIOKO KARGUDUNA

Elkartearen aurkezpena

Euskal Moneta Euskal Herriko tokiko moneta den Euskoa kudeatzen duen elkarte da.

2013az geroztik, Euskoak herritarrei, enpresei, saltokiei, elkarteei eta tokiko erakundeei moneta beren lurraldearen zerbitzuko tresna bihurtzeko aukera ematen die.

Bere aktibitateak hainbat helburu ditu: tokiko ekonomia sustatzea, hurbileko merkataritza eta ekoizpena babestea, trantsizio ekologikoa bizkortzea, elkartasuna indartzea eta euskararen erabilera bultzatzea.

Euskoak 6.000 kide baino gehiago biltzen ditu gaur egun: 4.600 norbanako, 1.400 profesional eta elkarte, eta 42 tokiko kolektibitate.

Lanpostuaren xedea

Garapen eta lurralde-animazioko karguduna bere lurraldean Euskoaren sarearen garapenaz, animazioaz eta dinamikaz arduratzen da, norbanakoekin, profesionalekin, elkarteekin eta tokiko eragile publikoekin.

Sare-garapena, lurralde-animazioa, herri-hezkuntza eta herritarren mobilizazioa uztartzen dituen lanpostua da; kargudunak Euskoa tokiko ekonomiaren eta lurraldeko dinamiken zerbitzuko tresna konkretu gisa indartzeko baldintzak sortzen ditu.

Bere jardunak helburu hauek ditu bereziki:

- Euskoa erabiltzen duten pertsona eta egitura kopurua handitzea;
- sarearen aniztasuna, kalitatea eta koherentzia indartzea;
- kideen artean Euskoaren erabilera garatzea eta monetaren zirkulazioa sustatzea;
- profesionalen, elkarten, tokiko erakundeen eta herritarren arteko loturak eta lankidetzak sortzea;
- monetari, tokiko ekonomiari, trukeen birlokalizazioari eta trantsizio ekologikoari lotutako erronken inguruan jendea sentsibilizatzea;
- Euskoaren inguruko dinamika kolektiboak sustatzea eta laguntzea.

Elkartean duen kokapena

Langilea Euskal Monetako Garapen poloan sartuko da.

Poloak modu kolektiboan funtzionatzen du garapen eta lurralde-animazioko kargudunen artean; haiek beren ekintza eta kanpainak zati bat elkarrekin definitu eta koordinatzen dute.

Lanpostua Euskal Monetako koordinatzaile orokorraren ardurapean kokatua dago.

Langilea elkarteko beste poloekin harreman erregularrean ariko da: komunikazioa, ekitaldiak, administrazioa, euskara, informatika eta koordinazioa.

Eginkizunak

Eusko sarea lurraldean garatzea

Garapen eta lurralde-animazioko kargudunak Eusko sarea indartzeko interesgarriak izan daitezkeen sektoreak, herriak, jarduerak eta eragileak identifikatzen ditu.

Horretarako:

- sarean sar daitezkeen saltoki, enpresa, ekoizle, artisau, elkarte eta bestelako egiturekin prospekzio-lana egiten du;
- Euskoaren proiektua eta funtzionamendua aurkezten ditu, eta egitura berriak laguntzen ditu Eusko sarean sartu eta funtzionamendua martxan jarri arte;
- sarea kuantitatiboki zein kualitatiboki garatzen du, erabiltzaileek beren euskoak tokian baliatzeko eskaintza anitza izan dezaten;
- tokiko moneta erregularlari erabiltzen duten norbanakoen kopurua handitzen du;

Sarea laguntzea eta dinamizatzea

Langileak bere lurraldeko profesional, elkarte eta gainerako eragileen jarraipen erregularra egiten du, Euskoaren erabilerak eta proiektuan duten inplikazioa garatzeko.

Horretarako:

- profesionalei eskuratzen dituzten euskoak berrerabiltzen laguntzen die;
- haiekin batera tokiko monetan trukatzeko hornitzaile eta aukera berriak bilatzen ditu;
- sareko kideen arteko harremanak errazten ditu;
- Eusko sareko kide izateari lotutako desafioak ongi ulertu eta betetzen direla zaintzen du;
- elkarteei % 3ko dohaintza-sistema erabiltzen eta Euskoaren inguruan mobilizatzen laguntzen die.

Lurraldeko dinamika sustatzea

Garapen eta lurralde-animazioko kargudunak Euskoa tokian proiektu bizi eta ikusgarri izan dadin laguntzen du.

Horretarako:

- permanentziak, merkatuak, ekitaldiak, bilkura publikoak, profesionalen arteko topaketak eta tokiko beste ekintza batzuk antolatzen ditu edo horietan parte hartzen du;
- herritarrak, profesionalak, elkarteak eta bestelako eragileak batera mobilizatzeko ekintzak proposatzen ditu;
- existitzen diren tokiko dinamiketan oinarritzen da: tokiko garapen-elkarteak, auzo edo herrietako elkarteak, kirol-klubak, kultur egiturak, eskolak, ikastolak, euskararen eragileak, sare ekonomikoak, etab.;
- tokiko laguntzaileen sare bat osatu, formatu eta animatu dezake;
- Eusko sareko kide desberdinen arteko loturak eta elkar ezagutza sustatzen ditu;
- monetaren, tokiko ekonomiaren, trukeen birlokalizazioaren eta trantsizio ekologikoaren erronken inguruko sentsibilizazio eta herri-hezkuntzako tailerrak diseinatu eta animatzen ditu;
- bere lurraldean sortzen ari diren beharrak, aukerak eta ekimenak identifikatzen ditu, eta ekintza egokiak proposatzen ditu;

Tokiko eragile publikoekiko lankidetzak eta harremanak garatzea

Langileak Euskoa tokian ordezkatzeko du eta lurraldeko eragileekin harremanak lantzen ditu.

Horretarako:

- herriei eta tokiko eragile publikoekin harremanak lantzen ditu;
- kide diren tokiko erakundeei Euskoaren erabilerak garatzen laguntzen die;
- lankidetzak berriak identifikatzen ditu eta horiek eraikitzen parte hartzen du;

Garapenaren gidaritza kolektiboan parte hartzea

Garapen eta lurralde-animazioko kargudunek zuzenean parte hartzen dute Garapen poloaren funtzionamenduan eta gidaritza kolektiboan.

Horren harira, langileak:

- arloaren lehentasun, helburu eta kanpainak definitzen parte hartzen du;
- emaitzen jarraipenean eta egindako ekintzen ebaluazioan laguntzen du;
- informazio, metodo eta esperientzia baliagarriak partekatzen ditu arloko gainerako kideekin;
- talde-bileretan eta elkartearen zeharkako proiektuetan parte hartzen du;

Laneko jarduerak eta tresnak

Lanpostuak, besteak beste, honako jarduerak dakartza:

- prospekzioa telefonoz, aurrez aurre eta sareen bidez;
- hitzorduak hartzea eta lurraldean bisita erregularrak egitea;
- ekitaldiak antolatzea eta horietan parte hartzea;

- balizko kideen, egungo kideen eta ekintzen kudeaketa eta jarraipena elkarrearen jarraipen-tresnetan eta CRM delakoan;
- talde-lana eta gainerako langileekin koordinazioa.

Bilatzen diren gaitasunak eta jakintzak

- Prospekzioa egiteko, proiektua aurkezteko eta konbentzitzeko gaitasuna;
- sare profesionala garatu eta mantentzeko gaitasuna;
- herritarrak, boluntarioak, elkarteak eta bestelako eragileak mobilizatzeko gaitasuna;
- lurraldeko animazioak eta ekintzak diseinatu eta antolatzeke gaitasuna;
- ohiko tresna informatikoak menderatzea eta CRM bat erabiltzeko gaitasuna;
- helburu kuantitatibo eta kualitatiboekin lan egiteko gaitasuna;
- autonomiaz lan egiteko gaitasuna, aldi berean antolaketa kolektibo batean kokatuz.

Eskatzen diren ezaugarriak

- Harremanetarako gaitasun oso ona eta jendearekin aritzeko gogoia;
- autonomia eta ekimena;
- antolatzeke gaitasuna eta jarraipenean zorrozatasuna;
- jakin-mina eta lurraldeko dinamika ongi ulertzea;
- solaskide desberdinei egokitzeke gaitasuna;
- Euskal Monetak sustatzen dituen balio eta helburuekin bat egitea.

Perfila

Honako arlo hauetakoren batean esperientzia izatea baloratuko da:

- merkataritza-garapena edo sare-garapena;
- lurralde-animazioa edo tokiko garapena;
- ekonomia sozial eta solidarioa;
- herritarren edo elkarten mobilizazioa;
- sareen animazioa;

Euskal Herria, bertako lurraldeak eta sareak ongi ezagutzea abantaila garrantzitsua izango da.

Euskara jakitea biziki baloratuko da.

B gidabaimena ezinbestekoa da, eta lurraldean maiz ibili beharko da.

Zergatik Euskal Monetarekin bat egin?

Euskal Monetan lan egitea tokiko ekonomia eraldatzeko engaiamendua duen elkarte batean sartzea da, eta lurraldearen zerbitzuko tresna kolektibo bat garatzen modu konkretuan parte hartzea.

- tokiko moneta baten dinamika kolektiboan parte hartzea eta haren erabilerak eta sarea garatzen laguntzea;
- 13 laguneko talde engaiatu batean sartzea, talde-lana eta lankidetzak lehenesten dituen antolaketa baten baitan;
- Eusko Egunean, elkartearen urteko hitzordu nagusian, eta sarearen bizitzako beste momento garrantzitsuetan parte hartzea;
- tokiko ekosistemako ekitaldietan parte hartzea, hala nola Lurraman, Korrikan eta lurraldeko beste ekimen ekonomiko, kultural, ekologiko eta herritarretan;
- Baionako egoitzan lan egitea, ekonomia sozial eta solidarioko beste egitura batzuekin partekatutako espazioan, trukeak eta lankidetzak errazten dituen;
- elkarteko ibilbidearen baitan euskara-klaseak egiteko aukera izatea;
- norbanako, profesional, elkarte, tokiko erakunde eta tokiko eragilez osatutako sare aberats eta anitzarekin harremanetan lan egitea.

Lan-baldintzak

- **Kontratua:** CDD, CDI baten aukerarekin
- **Lanaldia:** 35 ordu (lanaldi osoa)
- **Ordainsaria:** esperientziaren arabera zehaztekoa
- **Esku-hartze lurraldea:** hautagaiaren sare pertsonalaren eta bizilekuaren arabera zehaztekoa
- **Erreferentziazko lantokia:** Euskal Monetaren Baionako egoitza
- Esku-hartze lurraldean joan-etorri oso erregularrak;
- ordutegiak jardueraren beharretara egokitu ahal izango dira;
- Laneko telefonoa, ordenagailua eta tableta
- Zerbitzuko autoa
- Otordu-saria

Hautagaitza

Otoi, bidali kurrikuluma eta motibazio-gutun edo mezua rh@euskalmoneta.org helbidera **2026ko urriaren 1a baino lehen**.

Lanpostuan hasteko aurreikusitako data: **2026ko azaroaren 1a (hautagaiaren disponibilitatearen arabera adosteko)**.